

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

382

IRAGARKIA, 2024ko urtarilaren 17koa, Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordez-kariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitira Azpeitia, Errezil eta Zestoan (Gipuzkoa) dagoen «Piaspe parke eolikoa (33 MW) eta ebakuazio-azpiegiturak» izeneko proiektuaren aurretiazko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena eskatzeko eskabideak.

115/2002 Dekretuaren 7. artikuluan (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikitik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena) eta 24/2013 Legearen 53.1 artikuluan (24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa) ezarritako ondorioetarako, eta bat etorritik Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin, jendaurrean jartzen dira Piaspe parke eolikoari eta hari lotutako azpiegiturei buruzko proiektua eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

Espedientea: 20-GE-Y-2022-00010.

– «Piaspe parke eolikoa (33 MW) eta ebakuazio-azpiegiturak» izeneko proiektua:

- Piaspe parke eolikoa (33 MW), 5 aerosorgailu dituen (6,6 MW-koak), guztira 205 metroko altuerarekin eta 170 metroko errore-diametroarekin, Azpeitia, Errezil eta Zestoako udalerrietan (Gipuzkoa).

- Piaspe Sekzionamendu Zentroa (30 kV), Azpeitiko udalerrian (Gipuzkoa).

- Piaspe SZtik Lasao SETrako linea (30 kV), Azpeitia eta Zestoako (Gipuzkoa) udal-mugarteetako lurretatik igarotzen dena. 1. tarte: 0,699 km-ko luzera duena, lurpetik. 2. tarte: 2,926 km-ko luzera duena, airetik. 3. tarte: 0,291 km-ko luzera duena, lurpetik.

– Xedea: energia elektrikoa sortzea lehorreko teknologia eoliko berriztagarriaren bidez.

– Eskatzailea: Desarrollos Renovables Iberia PI SLU.

– Eskaeraren helburua: aurretiazko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

– Tartean dauden udal-mugarteak: Azpeitia, Errezil eta Zestoa (Gipuzkoa).

– Banaketa-sarera husteko puntua: «Lasao» azpiestazioa, 30 kV-ekoa, i-DE Redes Eléctricas inteligentes, SAUrena.

– Parke eolikoaren eta ebakuazio-linearen aurrekontua: 32.142.000,00 euro.

Industria Administrazioaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak eman behar dio proiektu honi alde aurreko administrazio-baimena. Jendaurrean erakusteko izapidea bete behar du baimen horrek, dena den, ingurumen-inpaktuaren azterketarekin batera, horrela ezartzen baita Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikuluan.

Hori guztia argitaratzen da, interesdunek eta, oro har, herritarrek 30 eguneko epean, iragarki hau argitaratzen den egunetik aurrera, dokumentazioa azter dezaten Industria Administrazioaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan (Easo kalea 10, 20006, Donostia) eta Interneteko www.euskadi.eus webgunean (Energia eta meategiak/Energia ataleko proiektuen jendaurreko informazioan: <https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/> eta egokitzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

Donostia, 2024ko urtarrilaren 17a.

Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordezkaria,
AGUSTÍN AROSTEGI ARTETXE.